



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua



JATORRIA:

2007-2008: Gazteen erabilera: perspektiba eta prospektiba

- PERSPEKTIBA: Gazteen erabileraren inguruan Euskal Herrian egindakoaren bilketa

118 fitxa erregistratu ziren: ikerketak (12), argitalpenak, erabilera sustatzeko egitasmoak (kanpainak, udalekuak, ...),...

- PROSPEKTIBA: Egindakoa aztertuta egiteke zegoena identifikatu

Aurrera begirako ildoak proposatu

PERSPEKTIBA ETA PROSPEKTIBATIK ...

Besteak beste, ondorioen artean atera ziren behar hauek

- Esperientzien zabalkunderako eta elkartrukerako sistema
- Oinarri teoriko eta metodologikoak
- Ekintza eta ikerketa uztartzea
- Ekimenen eraginkortasunaren ebaluazio sistemak eta neurgailuak
- Gazteen erabileraren egoera baloratzeko estandar bat (adierazle sistema bat?)
- Ikerketa kualitatiboak, datuen irakurketatik haratago
- ...

PROIEKTUAREN DEFINIZIOA (I)

Aztergaia:

GAZTEEN



12-30 urte

ERABILERA



Ez formala
Ez arautua

PROIEKTUAREN DEFINIZIOA (II)

Helburuak:

- Fenomeno konplexua modu sinplean irudikatzeko tresna
- Aplikazio praktikoari begira sortua
- Gazteengan interesa duen edozein hartzailerentzat baliagarria
- Hausnarketa partekatua oinarri (adituak, arituak eta gazteak)
- Orokorra baina moldagarria

PROIEKTUAREN DEFINIZIOA (III)

Urratsak:



ADITU / ARITUEN HAUSNARKETA

- 2008ko udaberrian
- Gaia alderdi ezberdinetatik ezagutzen duten pertsonaz osatutako lan taldea
 - Helena Baraibar (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa)
 - Eneko Barberena (Txatxilipurdi elkarte)
 - Jon Mikel Fernandez (Xirika gazte kazeta)
 - Pello Jauregi (EHU- Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
 - Joana Mendiburu (HARMAN komunikazio zerbitzuak)
 - Olatz Zabaleta (Arangurengo Udala- Euskara Zerbitzua)
 - Sonia Perez (Topagunea- Gazteen saila)
 - Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

ADITU / ARITUEN HAUSNARKETA

Galdera bidez bideratutako hausnarketa.

ABIAPUNTUA:

Zure ustez zein aldagaik dute eragina 12-30 urte bitarteko gazteek eremu ez formalean duten hizkuntza erabileran?

→ ZERRENDA OSATU eta BATERATU

ADITU / ARITUEN HAUSNARKETA

ALDAGAIK

DEFINIZIOAK ADOSTU

ADIBIDEAK eta AZPI-ALDAGAIK

ANTOLATU
ORDENATU


Beste 2 galdera

ADITU / ARITUEN HAUSNARKETA

ALDAGAIK ORDENATZEKO

Zein mailatan eragiten du batez ere zerrendako faktore bakoitzak: maila indibidualean, maila mikroan edo maila makroan?


Martinez de Luna (2001)




ADITU / ARITUEN HAUSNARKETA

ALDAGAIK ORDENATZEKO

*Zein mailatan eragiten du
batez ere zerrendako faktore
bakoitzak: motibazioa,
ezagutzan edo erabileran?*





GAZTEEN HAUSNARKETA

- Aztergai diren gazteen adin tartearen barruan, tarte txikiagoak desberdindu beharra
- Hizkuntzaren gaia ezberdin bizi duten gazteen ikuspegiak jaso nahi ziren.
- Proiektuan parte hartzeak ez zien lan handia eskatu behar

Profil ezberdineko
gazte taldeekin
hausnarketa tailerrak

GAZTEEN HAUSNARKETA

Profilak osatzeko 3 aldagai

- Zonalde soziolinguistikoa
- Parte hartzaileen adina
- Saioa burutu behar zen testuingurua

ADINA	INGURUNE SL	TESTUINGURUA
12-15	Oiartzun (Ezagutza >%75)	Ikastolako euskara elkarte (Hurtzaro ikastola)
16-18	Zumaia (Ezagutza >%70)	Begirale ikastaroa euskaraz. (Urtxintxa eskola)
16-20	Etxebarri (Ezagutza <%25)	Gaztelekuko aisialdi taldea (Harribide fundazioa- Tiempo Libre)
20-25	Oarsoaldea (Ezagutza %30-%50)	Aisialdi antolatuko begiraleak. (Urtxintxa eskola)
20-30	Deba (Ezagutza >%75)	Hizkuntza jarrerak aztertzeko proiektua (Elhuyar- Debako Udala)
21-26	Euskal Herria	Magisteritza ikasleak (HUHEZI- MU. 3. maila)

GAZTEEN HAUSNARKETA

- 2 ordu inguruko saioak

TAILERRETAKO URRATSAK

- Aldagaien zerrenda osatu – 1. galdera
- Matrizearen ardatzak azaldu
- Aldagaiak kokatu/ordenatu – 2 eta 3.galderak
- Adituen matrizea aurkeztu eta azaldu
- Antzekotasun eta ezberdintasunak komentatu



GAZTEEN HAUSNARKETA

TAILER BAKOITZAREN EMAITZAK

- Gazteen Matrizea
- Adituen matricearekiko inpresioak
- Audio grabazioak



Urratsak:



BATERATZEA ETA ONDORIOAK

Prozesu osoan zehar jasotako hausnarketa, iritzi, ideia eta iruzkinak bildu, bateratu eta borobiltzeko ardura Proiektu Taldeak.

Oinarria:

Adituen hausnarketa

Gazteen saioetan ateratakoa tartean txertatu eta moldaketetarako.

Azken emaitza:

Erabileran eragiten duten faktoreen azterketa eredua (eskema)

+

Ondorio nagusiak (osagarri).

**MAILA
MAKROSOZIALA**

Pertsona
eta talde
errefe-
renteak

Kontsumo
eskaintza
(produktuak
eta
zerbitzuak)

Input
mediatikoak

Testuinguru
politikoa

**MAILA
MIKROSOZIALA**

Harreman
sareetako
hizkuntza
arauak eta
ohiturak

Hizkuntzarekiko gizarte
pertzepzioa

Egoera soziolinguistikoare
kiko gizarte pertzepzioa

Hizkuntza
gaitasuna

**MAILA
INDIBIDUALA**

Hautzaroko
hizkuntza
ingurunea

Jarrera eta
portaerak

Identitate
kolektiboak

Ondorio Nagusiak (I)

Aztertutako guztiak, faktoreak antolatzeko eskemaz gain, zenbait ondorio orokorretara ekarri gaitu:

Gazteen eremu informaleko hizkuntza erabilera: gizarte fenomeno konplexua da

Funtsezkoa da konplexutasun hori uneoro presente izatea.

Hizkuntzaren erabileran elkar korapilatutako faktore ugari eragiten dute; zaila da faktore baten eragina non hasi eta bukatzen den mugatzea

Aldi berean ezinbestekoa da hurbilpen bat egiten saiatzea.

Gazteek eta eurekin lanean esperientziadun adituek erabileran eragiten duten faktore bezala identifikatzen dituztenak, orokorrean oso antzekoak dira.

Ondorio Nagusiak (II)

Gazte talde bakoitzak, fenomenoak berak bizi duenaren arabera ulertzen du.

Adituek, hausnarketa burutzerakoan Euskal Herriko testuinguru ezberdinak kontuan edukitzeko irizpidea zorrotzago jarraitu dute

Gazteen artean bakoitzaren testuingurua orokortua eta bakarra izango balitza bezala hitz egiteko joera sumatu da, zaila egin zaie, beste bizipen batzuk dituzten gazteen lekuan jartzea.

Azterketatik sortutako eredu orokorra eta aldi berean egokigarria izatearen beharra berresteko balio izan du.

Ondorio Nagusiak (III)

Faktoreak sailkatzerakoan, gazteen artean maila indibidualerako joera nagusitu da nabarmen.

Adituek baino faktore gehiago kokatzen zituzten maila horretan.

Hizkuntza erabilera hautu pertsonal soila bezala ulertzeko joera egon liteke honen atzean.

Ondorio Nagusiak (IV)

Adina azterketa ereduaren eskematik kanpo uztea erabaki da.

Proiektuko partaideek etengabe aipatu izan dute, erabileraren baldintzatzaile gisa.

12-30 urte bitartean erabileraren aldakortasuna azaldu dezakeela eta azaltzen duela ulertu arren, aldakortasun hau eskeman bildutako faktoreen baldintzak aldatzearekin lotzen da: adinean gora egin ahala identitateak, gaitasunak, pertzepzioak, erreferenteak, harremanak eta abar aldatzen direla, alegia.

Ondorio Nagusiak (V)

Ingurunea: faktore bakar bezala aipatu bada ere, xehatu beharra eta ingurunearen barruko faktoreak identifikatu beharra ikusi da.

Gazteen artean Ingurunea sarritan aipatu izan da faktore bezala.

Kontzeptu horrek bere barnean elementu asko biltzen dituela deritzogu. Faktoreak antolatzeko erabili den eskeman, hiru maila nagusietako bati maila mikrosoziala edo ingurune hurbilekoa deitu zaio. Ez litzateke beste faktoreen parekoa izango; orokorragoa, zabalagoa.

Ondorio Nagusiak (VI)

12 eta 30 urteko gazteen hizkuntza erabilerarako, hiru harreman sare aipatu izan dira bereziki: familia edo etxea; ikasketa edo lan-gunea; lagunartea.

Familia edo etxeko harremanek osatzen dute lehena.

Ikasketa prozesua edo jarduera profesionalarekin lotutako erlazioak daude bigarrean.

Hirugarrenaren barruan bikotekidea, kuadrila eta bestelako lagunak berezi beharra dezentetan aipatu izan zen, multzo bat osatu arren hiru azpitalde hauek erabileran izan dezaketen eraginaren intentsitatea eta zentzua ezberdina izan daitekeela kontuan hartuta.



Mila esker zuen arretagatik!

asier@soziolinguistika.org

Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua

Testuinguru politikoa

Marko legala
(Hizkuntzaren
estatus legala)

Instituzioen
hizkuntzarekiko
jokaera

Beste
erakundeen
hizkuntzarekiko
jokaera
(alderdiak,
gizarte
mugimenduak,
elkarteak,...)

ESKEMARA
ITZULI

Input mediatikoak

Publizitatea/
marketing-a

Hedabideak
eta kultur
kontsumoa

Informazio eta
Komunikazio
Teknologiak
(IKT)

Moda eta
joerak

ESKEMARA
ITZULI

Kontsumo eskaintza (produktuak eta zerbitzuak)

Euskarazko
produktu
eskaintza

Euskarazko
zerbitzu
eskaintza

Euskararen
erabilera
sustatzera
bideratutako
produktu,
zerbitzu eta
jarduerak

ESKEMARA
ITZULI

Pertsona eta talde erreferenteak

Gizartean erreferentzia diren pertsonen jokaera (famatuak, prestigiodunak, agintariak, kirol edo ikuskizunaren munduko idoloak,...)

Ingurune hurbileko erreferentziazko pertsonen jokaera (familiakoak, irakasleak, aisialdiko begiraleak, herriko gazteak, lagunak, lagun-taldeko liderrak,...)

ESKEMARA
ITZULI

Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa

Euskararen
bilakaera
historikoari
buruzko
pertzepzioa

Euskararen
egungo
egoera
soziolinguis-
tikoari
buruzko
pertzepzioa

Euskararen
etorkizunari
buruzko
pertzepzioa

Euskararen
erabileraren
aurrean
dauden
jokaera eta
jarreraren
pertzepzioa.
Hizkuntza
gatazkarekiko
hurbiltasuna.

ESKEMARA
ITZULI

Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa

Euskaldunaren
irudia (hiztunei
lotutako baloreak,
aurreiritziak...)

Euskararen irudia

- Hizkuntzaren berezko balio sinbolikoa
- Hizkuntzaren berezko balio instrumentala

ESKEMARA
ITZULI

Harreman sareetako hizkuntza arauak eta ohiturak

Erabilera esparruetako
arau eta ohiturak

- Lagunak/
Kuadrila/ Bikotea
- Etxea/Familia
- Lantokia/
ikasketa tokia
- Antolatutako
aisialdia/kirola

Norbanakoa eta
taldearen arteko
elkarreragina

ESKEMARA
ITZULI

Hizkuntza gaitasuna

Norberaren gaitasuna

- Oinarrizko hizkuntza gaitasunaren jabetza
- Gaitasun erlatiboa (elebitasun orekatua/desorekatua)
- Euskarazko komunikaziorako erosotasuna (hizkuntza naturala, adierazkorra,...sortzeko gaitasuna)
- Euskalkian aritzeko gaitasuna

Inguruko
hizkuntza
gaitasuna
(Hiztunen
arteko gaitasun
oreka/desoreka)

ESKEMARA
ITZULI

Identitate kolektiboak

Familia,
kuadrila eta
inguruko
taldeekiko
kidesan
sentimendua

Herria,
eskualdea,
lurraldea,
nazioa eta
kulturarekiko
kidesan
sentimendua

Euskal
hiztunen
taldearekiko
kidesan
sentimendua

ESKEMARA
ITZULI

Jarrera eta portaerak

Hizkuntzarekiko
jarrerak: lotsa,
harrotasuna,
koherentzia nahia,
axolagabetasuna,...

Hizkuntzarekiko
portaera

ESKEMARA
ITZULI

Haurtzaroko hizkuntza ingurunea

Familian
bizitako
hizkuntz
errealitatea
(ama hizkuntza,
ezagutza,
erabilera,
pertzepzioa,...)

Eskolan
bizitako
hizkuntz
errealitatea
(ezagutza,
erabilera,
pertzepzioa,...)

Auzoan
bizitako
hizkuntz
errealitatea
(ezagutza,
erabilera,
pertzepzioa,...)

ESKEMARA
ITZULI